

Ainhoa Larrañaga

HUHEZIKO ETA LANKIKO KIDEA

## Biltzeko udagoiena

**A**urreko batean lankide batek esaten zidan: “Udagoiena niretzat biltzeko sasoi izaten da”. Hala bizi dut nik ere, aurtengoan behintzat, uda ondorena. Norbere baitan itxi edo bildu eta hainbat galdera sakoni erantzuna emateko parada hartzeko beharretik bizi dut aurtengoan.

Gure aurrekoen sasoiatik hona, asko aldatu dira gauzak. Asko aldatu da gure bizitza gidatzen duten egien edo irizpideen arastoa.

Ez zen erraza eurena, ikuspegi askotatik oso gogorra zen baina bazuen errazetik edo erosotik ere. Erljioa zen, hein handi batean, txuriaren eta beltzaren arteko muga definitzen zuen marra zehazten zuena. Familia eredu, emakumeen eta gizonen arteko funtzio eta rol banaketak, lanaren kontzepzioa... Ia dena zetorren iturri beretik. Hainbat balore ere erlijioaren eskutik ailegatu zaizkigu –ez bakarrik– elkartasuna, berdintasuna, austeritatea, justizia soziala... Egoera hark bazuen ziurtasunetik asko eta horrek norbanakoari ere lasaitasuna ematen zion.

Gaur ordea dena da aldakor eta erlatibo. Dena da libre, ez dago egia bakar bat eta ezta guztiz egia denik ere. Ezer ez da betiko edo ez dauka zertan izanik. Erlatibotasun eta aldakortasunak, lasaitasun “faltsu” hura lausotu dute.



JUDITH FERNANDEZ

Hala ere, gure burua erraz eta merke autodefinitzen dugu, hainbat adjektiborekin: solidario, berdintasun zale, justizia sozialaren aldeko, aurrerakoi... Eguneroko gure praxiarekin alderatu gabe. Esatetik izatera eta egitera saltoa dago; kontraesan deitzera ere ausartuko nintzateke. Solidaritate kontzeptuari gagozkiolarik, Arrasateko kooperatibista zahar baten esanetan: “Benetako solidaritateak arimari edo poltsikoari min egin behar dio”. Zenbat solidariori egiten ote die min duten elkartasun mailak?

Noraezerako horra bi klabe: egia garbirik eza eta bakoitzak aldarrikatzen duen *egiatik* ekitera dagoen saltoa.

Ez bagara gelditzen une batean, ez badiogu gure ekintzei erreparatzen, jarraitu genezake, koherentziarik eta zentzurik gabeko bizitza ereduak eramaten.

Baina, zerbaitek egin du *klabe*. Bada ondo ez dabilen zerbait. Edo egindako denak ez ditut garbi edo diodana ez dut betetzen.

Bada beraz biltzeko sasoi. Gure baitan biltzeak, gure ekinbide konpultsiboa gelditzea dakar. Garenari eta izan nahiko genukeenari arreta eskaintzea eta honek daukaguna gустuko ez izatea suposa dezake eta gустuko ez izateak, aldaketa dakar eta aldaketa, beti da zaila. ■



Gure burua erraz eta merke autodefinitzen dugu, hainbat

adjektiborekin: solidario,

berdintasun zale, justizia

sozialaren aldeko, aurrerakoi...

Eguneroko gure praxiarekin

alderatu gabe



## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Egin zuten astebetez, txiki-txiki eginda ekarri zuten Martutenera.

Berrogeita bat urte eta hilabete eta erdi joanak dira dagoeneko, eta burmuineko motxilan dut oraindik fresko. Ekarri eta “el período” deitu egonaldian zeukatela, arnasa bere onera ekarri aurretik eraman egin zuten berriz ere komisaldegira. Bere garrasi hautsiek aztoratuta, oihuka ziegatik ziegara erabaki genuen gose grebari lotzea. Afari garaian konturatu ziren funtzionariak zertan genbiltzan. Banaka eman gintuzten ziegatan hirunaka gintuztenak. Handik bost bat egunetara ekarri zuten bueltan. Hilabete

## Torturatu

osoa eduki gintuzten zigortuta elkar ikusi gabe. Adinez bikoizten gintuena, masakratua zuten

bigarren aldiz. Bere onera etortzen kostatu egin zitzaion, aurpegiaren dardara salatzaile. Eta aste honetan *Garan* bere eskela ikusi dudalarik, burmuineko zakua ireki egin zait orduko oroitzenak eguneratuz. Badakit jakin, behartsuen alde eta errepresaliatuen alboan eman duela bere bizi denbora. Ez dit aukerarik eman agurtzeko, bizi izan zen bezala abandonatu gaitu, diskretuki. Mauri Zentol Legarda, gizon zuzena eta atsegina, bere estualdietan ere umoretsua. Beste andana bezala, Itziarren semea bera ere. ■